

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak, enpresarioek eta Estatuak hitzarmen bat sinatu dute enpresen nazioartekotzea sustatzeko

Aurreikusitako jarduerak bideratu dira enpresarioak sentsibilizatu eta prestatzeko eta kanpoan merkataritza-ekimenak sustatzeko

Lunes, 11 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak Kanpoko Merkataritzako Espainiako Institutuarekin (ICEX), Merkataritza eta Industriako Ganberarekin eta Nafarroako Enpresarioen Konfederazioarekin lankidetzarekin hitzarmen bat sinatu du enpresa nafarren nazioartekotzea elkarrekin eta era koordinatuan egiten laguntzeko.

Erakunde sinatzaileek iritzi dute merkatu

tradizionaletan nahiz berrietan

nazioartekotzea helburu nagusia dela Nafarroa nahiz bertako enpresak merkataritza-garapen handiagoetara hel daitezten. Xede horretarako, enpresa guztientzat programa eta ekintza komunak sustatzeko konpromisoa hartu dute, eskura dauden baliabideak hobeto aprobetxatzeko, 2016ko abenduaren 31 arte indarrean izango den akordio baten bitartez.

Hitzarmenean aurreikusitako jarduera-ildoak hiru dira: 1) enpresak sentsibilizatzea kanpoko merkatuetan proiektzioak duen garrantziari buruz; 2) prestakuntza eta informazioko jarduerak sustatzea merkatu berrien eta negozio-aukera berrien inguruan; eta 3) enpresetan esportatzeko jardueraren hasiera sustatzea.

Nafarroako Gobernuko egoitzan gaur goizean gauzatu den akordioaren sinatzaileak honako hauek izan dira: bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda; Merkataritza zuzendari eta ICExeko Nafarroako lurralde-zuzendari Isabel Peñaranda; Nafarroako Ganberaren lehendakari Javier Taberna eta Nafarroako Enpresarioen Konfederazioko lehendakari José Antonio Sarría.

Aurreikusitako ekintzak

Enpresak sentsibilizateko arloan, enpresa-sarea negozioia



Arlo instituzionaletako hitzarmenaren izenpetzea enpresak nazioartekotzeko. Ezkerretik eskuinera: Javier Taberna (Ganbera), Miranda lehendakariordea, Isabel Peñaranda (ICEX) eta José Antonio Sarría (CEN).

dibertsifikatzeko eta kanpo-merkatuak zabaltzeko beharrari buruz kontzientziatzeaz gain, ahal esportatzailea duten enpresak identifikatu nahi da eta nazioarteko merkatuetan gazteen prestakuntzan laguntza ematea.

Esportazioan hasteko ekintzen arloan, helburu nagusia enpresa esportatzaile erregularren oinarria handitzea da aholkularitza espezializatuaren eta laguntza bidez kanpo-merkatuak estrategia zehatz batekin aztertzeke.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak eta erakunde sinatzaileek enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua bizkortzea proposatzen dute eta haien presentzia kanpoan finkatzea, bai eta programa nahiz ekintza sektorialak sustatzea eta esportazioari laguntzeko zerbitzuak zabaltzea ere.

Hiru jarduera-ildo horietako bakoitzaren jarduera zehatzen edukia erakunde sinatzaileekin egindako hitzarmen zehatzen xede izango da eta haiek guztiak [Nafarroa Nazioartekotzeko Plana](#)ren barnean sartuko dira.

Hitzarmenaren egikaritzea sustatu eta koordinatzeko, jarraipen-batzordea bat sortuko da, eta batzorde hori